

# Hasi 1888an eta...

## R. M. Azkue

Liburu honetako izar nagusia R. M. Azkue da norberak nahi ala ez. Ikasketak amaitu bezain pronto, 1888. urtean, hasi zen martxan eta ez zen gelditu hil arte. Zer ez zuen landu honek! *Gile*, ari eta *logo* izan zen, hau da; ipuingile, zartzuelagile, operagile, kazetari, gramatikari, filologo, antropologo, musiko (logo)... eta abade -ia-ia ahaztu-.

Nahiz eta Lekeitiotik kanpo bizi izan luzaroan, beti izan zuen gogoan Lekeitio eta udaro etortzen zen hona familia eta lagunekin egotera. Ezin da ulertu bere pertsona ezta bere obra ere kontuan ez badugu hemengo zela. Biografiatxo bat egingo dugu, soberan jorratutako gaia delako eta Lekeitiorekin zerikusi berezia duten lau obra erakutsiko dizkizuegu: *Grankantonen arrantsaleak*, euskaraz idatzi zuen lehen kontakizuna (1888), *Bein da betiko* euskaraz idatzi zen lehen nobela (1893), *Vizcaytik Bizkaira* lehen euskal zartzuela euskalduna (1895), *Txirristadak*, *Euskalzale* astekarian argitaratu zituen kontakizun xelebreak (1897-98), eta amaitzeko *Ortzuri* lehenengotariko euskal opera (lehenengoa *Txanton Piperrri* Buenaventura Zapirain herrikidearena izan zen).

Resurrección Lekeitio jaio zen 1864an eta Bilbon hil 1951an, anai-arrebetatik Lekeitio jaio zen lehena. Aita Eusebio Azkue Barrundia lekeitiarra zen (1813-1873) eta ama Karmen Aberasturi Uribarri mundakarra (1835-1913). Etxean giro aproposa bizi zen, aproposa kulturarekiko interesa pizteko: aita Nautikako irakaslea eta poeta zen, musika ere gustokoa zuen, anaia Alfonso (1845-1890) itsasoak apurtutakoa eta aita makaldu eta hil ostean, hau ere, Nautikako irakaslea eta musika zale amorratua, arreba Sol eta Aurora andereñoak...

Nautika etxe aurrean zuen eta anaia zen irakasle gainera, beraz lehen mailako ikasketak amaitu ostean, 1876an eta 12 urterekin, Nautika eskolan sartu zen. Bi urte egin zituen eta 14 urterekin Bilboko Probintzia-institutura joan zen batxilergo egitera. Amaitu ondoren 1881ean Gasteizera joan zen eta hango seminarioan lau urte egin zituen. Ikasketetako azken hiru urteak Salamancan egin zituen, ez dugu kantak dioen moduan *estudiante tunantea* zenik. Esan barik doa abade egin zela. 1888an (Lekeitioko iturriak ordukoak dira) amaitu zituen ikasketak eta urte horretan, hain zuzen ere, Bizkaiko Aldundiak euskarazko katedra sortuko zuen eta Azkuek eskuratu zuen Unamuno edo Sabino Arana gaindituta. 24 urte zituen, abadetu berri, euskara munduan lanetan hasi zenean.

Ez zeukan nagirik, euskararen premia guztiei erantzuna aurkitu zien. Kontakizunak behar zirela euskara ikasteko, ba

*Grankantonen arrantsaleak*, *Bein da betiko...*; Euskal gramatika behar zela, eutsi *Euskal Izkindea* (1891); euskal zartzuela behar zela, eutsi *Vizcaytik Bizkaira* (1895), haurrentzako ikastola behar zela, ba euskal ikastetxea (1896); euskaraz idatzitako prentsa behar zela, tori *Euskalzale* astekaria (1897-1899) edo *Ibaizabal* astekaria (1900-1903). Hori XIX. mendean. XX. mendean beste horrenbeste edo are gehiago!

1904-09 artean "oporrak" hartu zituen, bere erara, noski. Europan zehar bidaiatu zuen, batez ere musikako ikasketak hobetzeko asmoz, bere pasioa. Bitartean Euskarà-Espainera-Frantses Hiztegia argitaratu zuen (1905-06). Buelatu zenean opera bi idatzi zituen *Ortzuri* eta *Urlo*, opera wagneriarrek, baina ez zuten arrakastarik izan. Berritro bueltatu zen filologia lanetara. 1919an Euzkaltzaindia fundatu zuen, 1921ean *Cancionero Popular Vasco* argitaratu zuen, 1923an *Morfología Vasca*, 1935ean *Euskalerrriaren Yakintza...*



Ez zara lehenengua txo-  
txo. 1984an *Sustraia*  
aldizkarikuak ale bere-  
zi bat eskeini eusten,  
*Azkueren omenez*. Han  
dagoz Lekeitioko kan-  
tak, ohiturak, esanak,  
hitzak...



## 1888 Grankanton arrantsaleak

Leyenda en prosa bascongada basada en un hecho histórico acaecido en las aguas del Cantábrico hacia el año 40 de este siglo.

Lurragaz asarratuta balego lez, betondo itzal bat erakusten dau Otoioko<sup>1</sup> mendi ganetik zeruák; turmo eta Eleizako chilin sendoen durundiagaz gortu bear dira gizonen belarriak; batak baño bezteak arinago lurra astindu nairik burruka dabiltzazala esan lei oñaztarra<sup>2</sup>, chingorra ta euria; chimiztaren zirzartadak noizik noizera ebagiten dabez uria sapaldu nairik dagozan odai astunak; zeruen deia entzunda, ezeri icharon bage, abian dira erreietan ichasoko urak, eta alkar garaitu ezin dabenian doaz ondarra astertuten batzuk, aitzak austen bezteak, eta danak gora goraka erakusten dabe lurra iruntziteko<sup>3</sup> guraria.

Ónen antzera dabiltz bein oná ta bein ará<sup>4</sup> emakume errikarriak, zapia dingilizka, úleari tiraka, ats amarrakaz arpegia ez-talduta begiak leortuten, Antiguako Ama Dontsellaren oinetan auspazu eta biotzetik erregu labur ta samur bat egiten dabela. ¿Zer jaso<sup>5</sup> da Lekeition?

### II

Ormechako<sup>6</sup> kalean bizi zan Eulea<sup>7</sup> esaten eutsen atso bat Eleizan ez egoan adizkide ez eban Santurik, ez egoan lez urian ñor Eulea ezagututa maitetuko ez ebanik.

Eukan seme bat azkarra, zolia ta ona; bere gurari andiena zan ama pozez eukitea: amagaz solora, amagaz Eleizara, amagaz

kaira ta amagaz edonora ebillen Lorentzo<sup>8</sup>. Ez da zetan esan ez egoanik iru probintzietan Eulearentzat bere Lorentzo baño mutil ederragorik. Sarari es eutsan poz geiago esarriko aingeruak seme bat eukiko ebala esan eutsanian, Euleari zartzara Lorentzoren jaioterak emon eutsan baño: Lorentzo barik ez zan gauza bizi izateko; ain modutan eze; sarri ausoko lagunak bere agotik entzun eben; Lurrean Lorentzozag, Lorentzozag zeruan eta Lorentzo barik inun ez ebala bizi nai.

Nekazaria zan Eulea, bere izenak<sup>9</sup> autor-tuten daben moduan; eta bientzat lain<sup>10</sup> emoten ez eban lez bere izerdiak, ausoko Antonen chalupan mari-erdiko<sup>11</sup> sartu eban bere semea. Ichasoan noiz egoan iparra, noiz egoia, noiz mendebala ta noiz kampaizea, ñok baño obeto ekian Ormechako alargunak.

Bere biotz biguna atsakabetuten eben gallarren otsak ta mendebalen putzak; eta lañoak, gurmiak, zargoriak eta zarrazoiak ez eben talaiako<sup>12</sup> mendi-burua Eulearen bekokia baño geiago illunduten.

Orbelak eta bidetako autsa ekaitzaren<sup>13</sup> susmoagaz ikaratuta gora goraka ebiltzazanian, Ormechako kalearen sokondo baten argi egiten eutsan antiguako amaren irudiari errechin<sup>14</sup> negarti batek

### III

¿Zer jaso da Lekeition?

Begiratu deigun Eulearen gelara, eta arrantsaleari seineroaren<sup>15</sup> keiak adierasotenen deuten lez noiz dagon chonchorroa<sup>16</sup>,

8 Hemos escrito Lorentzo y no Lorenzo por adecuarnos á la pronunciacion bascongada.

9 Ezizena= mote ó apodo

10 tanto como= lo suficiente etc.

11 de media racion. Mari-a significa entre los pescadores racion. Ignoramos el origen de esta palabra

12 Talai-a= monte al Este de Lequeitio

13 Ekaitza= tempestad

14 vela de resina muy usada hasta nuestros dias entre la gente baja

15 seinero= vigía de pescadores

16 Grupo de aves marinas cerniendose

1 Otoiio, monte al Oeste de Lequeitio

2 relámpago

3 Iruntzi= devorar

4 frase vulgar y expresiva que denota inquietud. Bein oná ta bein ará= ahora aquí, ahora allá

5 ¿Qué ha ocurrido en Lequeitio?

6 con este nombre se conoce la calle de Narea

7 Tejedora



noiz manjuia<sup>17</sup>, esango deusku gelako keiak zer jasoten dan Lekeition eta zer ichasoan.

Jarraitu deiguzan Eulearen pausuak, entzun deiguzan bere berbak; eta jakingo dogu ichasoen erdian dagozala uriko gizon geienak: goazen kaira<sup>18</sup> eta ikusiko dogu batel, potin, botakor ta chalupa<sup>19</sup> guztiak ichasoan diriala. begiratu deigun ichasora, eta ikusiko dogu ez dala agiri ontzirik<sup>20</sup> zerurano jagiten dan bitzaren<sup>21</sup> artean.

Negar egiten deutsa seme bakarrari batek, senar barik gelditu bear dau onék, aita ta nebak<sup>22</sup> eta eurakaz echeko ondasuna ichasoetan ichiko dauz orék; guztiak dauke nor galdu, guztiak dauke senidea, ausoko edo lagun bat nori negar egin.

#### IV

Onetan<sup>23</sup> eskolatik urten dabe umeak; banan-banan<sup>24</sup>, illara bitan eta chapela eskuan dabela ichasoari begiratuten deutse ume gaisoak, gaur bi milla urte Israelen begiak ipinita Mesiaserri icharoten egoazanal lez; dart dart<sup>25</sup> doaz kaiaruntz Ama Mariari Aingeruaren agurra kantetan.

Aurretik biderik ezin edegita dabil mutil sendo bat, esku biakaz makilla bateri goruntz eutsiten, eta makillaren ertzean oial edo bandera urdin ta zaar bat dabela<sup>26</sup>.

An nastuten dira mutilen kantoa, emakumen didarra, alargunen inkesak, ume zurtzen<sup>27</sup> arantzak, aizearen chiztua, ta ichasoren amurruzko barallá<sup>28</sup>.

Kaiganean gizon ta emakume aldra bat dago mutil baten bournuan<sup>29</sup>, zerbai jakin nairik.

Errian zabaldu da masiko potinak<sup>30</sup> Ondarroan sartu diriala, Mo-

17 concentraciones de peces

18 Kai= puerto

19 pequeñas embarcaciones distintas por las formas y dimensiones

20 Ontzi= barco, palabra extensiva

21 Bitz= espuma

22 Hermanos con relacion á hembra, para distinguir de anaiak= hermanos con relacion á varon

23 en esto

24 de uno en uno

25 temblando

26 alusion á una costumbre piadosa é inmemorial de la villa de Lequeitio. Cuando la tempestad sorprende á los pescadores en el mar, salen los niños de la escuela en procesion precedidos de uno mayorcito que sostiene en sus manos una tradicional bandera hecha girones y de color verde. Cantan por las calles el Ave-María y no cesan hasta un lugar denominado Tala goikoa, donde se elevan sobre las peñas una linda hermita dedicada á San Juan Evangelista. Allí hincados delante de la imágen del Santo rezan la letanía Lauretana, tienen un rato de recreo en la pequeña planicie que rodea la hermita, y vuelven á la Escuela.

27 Huérfanos

28 ruido

29 en derredor

30 lanchas pequeñas que se dedican á la pesca de la sardina

trikun traineroak<sup>31</sup>, eta inok ez daki Grankantoko gizonen barririk.

“Eta nire aita”, dirautse mutilari; “eta nire senarra”; “eta nire seme Lorentzo...”, ai ene biotzeko kutuna! ¿zek eroan zaitu Grankantora ama bakarrik ichita? ¿Ez zengozan obeto zure amaren magalpean<sup>32</sup>, ichasoakaz kezkan<sup>33</sup> azi barik? ¡Ai egun negargarrija! Eriotsa erruki bakoa ¿Zergaitik ez nazu zugaz ichasora eroan, seme maitearen besoetan Jaunari arima emon neion?”

Negar onekaz batera entzuten zirian didarr (sic) amaibakoak, arrantza gogorrak, alarau negargarriak, intziri zoilak, chilio bihotzekoak.

Salvetako chilinák Eleizan batu dauzan abadeak azi dira organoaren zaratara Antiguakoari erregututen.

Gero ta gogorrago<sup>34</sup> chiztu egiten dau aizeak, gero ta bitz geiago ateraten dau uretan mendebalak, gero ta arpegi illunagoa erakusten dau ekaitzak; eta inok ez daki Grankantoko gizonen barririk.

#### V

Grankanto da ichasoen erdian dagon kala<sup>35</sup> bat ondartsua, besiguz ugaria eta arrizku andikoa.

¿Baña nun dago euskaldunen biotza ikaratu ta atseratuko daben arriskurik?

¿Ez zirian potincho batzuetan Irlandarano eldu? ¿Ez dira eurak zurezko ontsietan Lurrari lenengo bira emon deutesenak? Burdinazko ontsi izugarrietan Ingelesak ichasoari aginduten azi ordurako ¿Nortzuk azpiratu eben batel ta bombo<sup>36</sup> makaletan ichasoren indarra?

Ora or Zaldibar<sup>37</sup>, El-Cano, Legazpi, Churruka ta bezte ichasoko agintari azkoren odola sanetan dauken gizonak.

Erroian<sup>38</sup> dabez eguzki berotan euren tertzak<sup>39</sup>, ondoraño<sup>(a)</sup> erriauta daukez lebatzetako kordeletak; ur-azalean igiri dabiltz tuntuizak<sup>40</sup>, mendebal gogorraren gomuta barik.

Umore onagaz atera dauz chapeletik arrata<sup>41</sup>, tunda<sup>42</sup> ta pipon-

31 lanchas algo mayores que con red más ceñidamente tegida (sic) se dedican á pescar anchoa

32 frase figurada que denota proteccion

33 Kezka= riña

34 modismo propio del Eúskara que indica aumento de accion con la marcha del tiempo

35 Lugares escogidos para pescar en alta mar; su conocimiento pende de la posicion que ocupa la lancha respecto de los montes

36 Barra de alto bordo: poco se diferencia del patache y quechemarin

37 La historia le da el título de general. Nació en Lequeitio, sirvió á San Fernando, distinguiéndose mucho en la toma de Sevilla, rompiendo con su barca la cadena que impedía el paso del río y el asalto de la ciudad

38 voz náutica que significa el modo de extender una cuerda á lo lejos

39 aparejo para la pesca de besugo (a) hasta el fondo

40 boyas huecas de hoja de lata

41 objetos que usaban los fumadores antes de la fabricacion de las cerillas

42 objetos que usaban los fumadores antes de la fabricacion de las cerillas

tzia<sup>43</sup> chalupa maisuak; panelpean<sup>44</sup> toloztuta<sup>45</sup> daukez narruzko jantziak, eta kordelak alateko<sup>46</sup> agindu dau nausiak.

Alaten azi ta bezte barik diño agura batek: “Mendebala, mutilak, galarrena; galduak gara”.

Gauza ikusgarria izango litsate, eun gizonen bizia arrizkuan ez balego, ze arin kordelak batu, tretzak gorde, narruzko jantziak soñeratu eta ekaitzari arpegi emoten prestau dirian arrantsale gaiso arek.

Amar ontsi txiki arek ondatuteko ichasoko urak naikoa ez balira lez, zeruak botala<sup>47</sup> jausten da euria; zer jasoko dan ikusi nai ez da, odai arteko bidea artuagaz, ague egin deutse eguzkiak, benturaz betiko<sup>48</sup>. zeruan dauke euren icharopena<sup>49</sup> eta zerua odai illunakaz estalduta dago.

“Amar ordu bear doguz, diño batek, urren dan errian sartuteko ¿Baña nor da amrr (sic) orduan, eta dagon ichasoagaz bere buruaren jaube? Ezin erakutsi gineio aizeari balizto txikia<sup>50</sup>. Abant<sup>51</sup> mutillak, abant gogotik, Aurrera”.

Danak diardue ichasoa auzten erramuakaz eta iñok ezin dau abantik egin...

Orduan<sup>52</sup> danetatik zarrenak dirautse “Agur lagunak; gure amaia<sup>53</sup> eldu da, parka eskatu deiogun alkarrerri, Jaunari damu andi bat erakutsiagaz. Agur”.

“Agurr (sic)”, erantzun eben osta-osta boitzen taupadak<sup>54</sup>.

“Agur”, isil isilik eta agin artean erantzuten eban Lorentzok, “Agurr, ene<sup>55</sup> ama biotzekoa, Agurr”.

Bezte guztiak Antiguako Ama miraritsuari<sup>56</sup> euren burua<sup>57</sup> gaitik erregututen eutsen artean, Lurreko ama gaitik zerukoari bere barruan dei egiten eutsan Lorentzok arren eroan egiela len bait len Bizkaiko sokondotik zeruko Jauregira<sup>58</sup> bere ama; ez eiela bakarririk lurrean ichi nai orduraño bera barik bizi ezin zana.

---

43 tabaquera de laton

44 panel= tablones que cubren el suelo de la lancha

45 plegados

46 para recoger

47 zeruak botala= todo lo que podían los cielos

48 quiza para siempre

49 esperanza

50 Balizto chikii= así llaman a una pequeña vela

51 á remar. Es posible que esta palabra se derive del vocablo francés avant

52 Etimológicamente significa “en aquella hora”= entonces

53 fin

54 convulsiones

55 ene= genitivo del pronombre Ni= yo. Está poco menos que en desuso

56 á la milagrosa

57 Burua= cabeza, hace oficio de reflexivo

58 al palacio

## VI

“¡¡¡Getaria!!!”, Kolonen agindupean egozan gizonak erria ikusi ebenian lako poz andiagaz egin eban Lorentzok, “!!!Getaria!!!”.

Didar onetara bizkortu zirian eriotza ezin garaituta ebiltzazan gizonak; “Getaria”; konkortuta diño guztiak; “Getaria”: eta lau palada<sup>59</sup> erriruntz botauagaz, chapela kendu ta burua makurtu eben San Anton Getariakoaren aurrean. Kaira sartu ta chalupak lotuteko azti barik prestau zan Lorentzo Lekeition gau illunez barri ona emoten joateko.

“Ez”, dirautso chalupako nausi Antonek; aldatu egizuz soñekoak, apaldu aztiro<sup>60</sup>, ta oera sartu zaite”.

“Nok lagun egingo deust Lekeitiora?” “Nik- Nik...” erantzun eutsen guztiak.

Artu eban Antonek sendoen erichon<sup>61</sup> lagun bat eta abiau zan Lekeitioruntz.

## VII

Goizaldean emakume pillo bat joian Lekeitioko kaletatik Eleizara Antiguako Ama maiteari ezkerak emoten. Ez zan aren artean bezterik entzuten ez bada: “Antiguako Amak gorde dauz gure arrantsale galduen biziak”.

Inok ikusi barik urten eban uritik egun sentieran<sup>62</sup> Euleak. Nekez igoten eban, bere urteen pizua leoan ebala, Loibeko<sup>63</sup> aldatsa; atsagoteko azti barik Endairi<sup>64</sup>, Baurdo, Anacabe, ta Ondarroa albo baten, eta beztean Azterrika ta Berritu ichi ebazan. Motrikun alkar ikusi eben aruntz joian emakume maitegarriak eta onuntz etozan gizon erdi billoizak. An barriro batu zirian ama ta semearen biotza; eta bertatik, laguneren erreguak zeruko deiagaitik atzeratuta, urten eben biak ortozik<sup>65</sup> Urkiolara, San Antoniori Euleak egin eutsan promesa betetuten.

A. M. D. G.

Br. Resurreccion María de Azkue (sinadura)

Salamanca Marzo 27/88

---

59 palada= golpe de remo

60 con calma

61 que le parecía

62 al alba

63 Loibe= caserío de Lequeitio

64 este y los nombres propios siguientes pertenecen á pueblos y lugares que se encuentran cerca de la senda antigua de Lequeitio á Guipúzcoa

65 descalzos

1893

## Behin da betiko

*Behin da Betiko* izan zen Azkuek idatzi zuen lehen nobela, bere hitzetan nobela izendapena merezi ez zuen arren. Erdal idazle euskaroen antzean euskal legenda bat hartu eta libreki, erromantikoki, moldatu zuen baina haiekiko abantaila nagusi batekin, euskaraz entzundakoak euskaraz idatzi zituela. 1893an argitaratu zuen ba lehen euskal edo euskaraz idatzitako nobela, (*humilde leyenda/produccion-cita...* etab. bere hitzetan). Lekeitieraz eta bizkaieraz idatzi zuen gainera. Guk lekeitiera aukeratu dugu zuok orduko gure herriko hizkera goza dezazuen. Luzeegia da hemen dena sartzeko, beraz zatitxoren batzuk aukeratu ditugu. Dena dela, Euskalerrriaren Yakintzan, bigarren liburukian legenda argitaratu zuen berriro, oraingoan entzun zue-netik askoz ere hurbilago, literato baino folklorista trajea jantzita. Azkenik Trebitsch abizeneko austriar bat ibili zen Euskal herriko lurretan euskara ikertzen eta grabagailu batekin elkarrizketak grabatzen. Gure Resurreccionez zein pasarte aukeratuko eta, legenda bera, beraz legenda edo ipuin horren hiru bertzio ditugu. Lastima, kontatu zionaren, Maruriren hitzak ez edukitzea!



"Behin da betiko", R. M. Azkue, 1893.  
Jesulagunen Loioloko artxiboa

Legendan oinarritutako nobelatxoarekin hasiko gara. Azkueren esanetan bere ikasleek euskarazko materiala izan zezaten idatzi zuen Behin da betiko<sup>1</sup>. Emaitzak asmo umila gainditu zuen; herriko ipuintxoak aprobetxatuz, nobela, filologia, herri hizkera, musikagintza... landu zituen. Nobedade izugarria izan zen bere denboran, Txomin Agirrerren gorripamena merezi izan zuen<sup>2</sup>. Azkue, errenazentisten antzean, artista totala zen.

Gaur egunean idazkera arraroa irudituko zaigu, whatsapp-ekoaren antzekoa agian, baina kontuan izan artean Euskara Batua ametsa baino ez zela. Gainera Azkue lekeitierako berezitasunak jasotzen ere ahalegindu zen eta horrexegatik agertzen dira honelako grafiak testuan:

-tx- adierazteko: tš (tšakolintegi, ekatš...)  
-j- lekeitiokoa: dš (dšan, balidšo...)  
-x- adierazteko: ž (gžonak, aiže...)  
Bokal luzeak: ê, â (bê, bâkigu...)  
Bustidurak: ñ, 1, ı (iluna, gorrıtuak, arıñdu...)

*Behin da betikoren* lehen kapituluko hasiera eskaintzen dizuegu, ea lekeitieraren doinua hautemateko gai zareten.

### Tšakolintegi baten

Ezeukan goiž atan Maripak barriketan iarduteko gogo andirik. Noižik noižera amantalaz igôzten ebazan beren (bere) begi negartsu ta gorriřuak.


Otondotšu batzuk ur gorıřan sartu ebazanian sokondoko' gižonai arpegi tšimurduna erakutsidšaz' «ke andidša dago gižonak (esan eutsen) eta eztaukazue beste lau egunian bê itšasoraterik. Ekatš gogorren ba takar aixe onek dandarrez.

1 Azkueren hitzak dira Euskalerrriaren Yakintza I.ean, 1935ean: "Geroxeago, 1890-garren urtean, nire sorturian aurrerago ikasitako beste irakurgai bat, lengoa baino biziki pollitagoa, ointzat artuz, ene ikasleentzat bizkaierazko itzulgai bat idatzi nuen. ¿Eta nola? Arakistain-en Tradiciones vasco-cántabras-en antzera, erriak emandako lagunen gainera nire irudimeneko beste lau edo bost lagun sartu nituen eta izentzat Behin da betiko ezarri nion liburuxka oni".

2 Euskal Erria aldizkaria, 7-1893 (299-301 or.): "Tienen por fondo y campo de acción los cuadros con admirable verdad reproducidos en Behin da betiko, la noble y hermosa villa de Lequeitio, y bien podemos asegurar que toda la parte bascongada de la costa cantábrica... Maripa, activa marimacho de palabra áspera é incisiva, pero de corazón blando y dulce, que se desborda totalmente cuando habla con su hijito el lenguaje del alma, muy especialmente al arrullarle en la cuna con aquella delicadísima canción que hierde las fibras más recónditas del sentimiento; Chanton, hombre crédulo, sencillo, y ridículo por sus infantiles alucinaciones, tipo raro entre nuestros hombres de mar, pero de ningún modo absurdo ni inverosímil; el arriero Perrandes, con el chapurreado bascuence salpicado de palabras extrañas, como hemos oido hablar á las familias castellanas que han tomado carta de vecindad en nuestro país; Tsili, personaje atlético y curtido, que tiene algo del Tremontorio de Pereda y algo de tiburón, y á quien presenta con detalles tan sabrosos como aquel separarse y hablar con la cara vuelta, virando de costado después del altercado con Chanton, tipos reales...

El Sr. Azkue no ha necesitado crear esos magníficos tipos; le ha bastado una observación atenta para pintarlos después con el fresco y natural color de los objetos...

El cual mérito no puede concretarse á los magníficos retratos que, con pinceladas de maestro, ha presentado el presbítero bizcaino y á la naturalidad y exactitud del diálogo, en que á mi juicio, ha superado á todos los escritores bascongados; hay que agregar además el de la corrección y soltura elegantísima de la dicción que emplea el autor cuando habla por sí mismo...".



"Bein da betiko", R. M. Azkue, 1893

—¿Zer, bâ, Maripa? erantzun edo iardetsi eutsen Maripari itšas-gižon arek.

—¿Enakutsue begidšak edegi eziñik?

—Astuen arrantzak eta emakumien negarrak' bâkigu, Maripa, zer balidšo daben.

--Eztaukat zeueri ezer esateko. Etzarie zuek asko erreko' itšasuak betondo iluna agertuarren; liorrian ondo zagoze; no tšaten emon eukiez kero' eztautsue lo-sorrua asko ariñdu edo sumatuko' mairako laiñ nok ekarri egon ezak. Aaaur dabil nire senar taketa bê: umezaiñ (aurzaiñ edo seiñ- dšagole ez esatiarren), dindirri-urtika ta kaliak austen. Amabidšetako tšiliñen durundi edo iskanbilak betiko moduan ekarriko dau a maira.... dšan-edanerako bê eztrudi baiña... on egiñ daidšola.

—Aulan, aaaulan Maripa. Goiž guztidšan ortše euki...

## 1913

Legenda edo ipuintxo horren audioa ere badugu, gainera 1913koa! Rudolf Trebitsch (1876-1918) austriar antropologo/etnografoa izan zen, Vienako Zientzietako Akademiako kidea. Europako hainbat hizkuntza gutxitu ikertu zituen grabazioak eginez. Euskal Herrira 1913an etorri zen eta Julio Urkijoren laguntzaz hotsak eta musika grabatu zituen.

Trebitschek 2.212 eta 2.213 diskoetan Azkue grabatu zuen, lau minutu besterik ez! Azkuek *Bein da betikoko* pasarte bat aukeratu zuen. 1913. urtea zen eta Azkuek 49 urte zituen. Beste lekeitiar bat ere grabatu zuen, Antonio Arrizubieta, Juan Daniel Eskurtzaren azaina kontatzen.

[Ahotsa.eus](http://Ahotsa.eus) web-orriak transkripzioa du, baina ezin da entzun. Phonogrammarchiv (ÖAW) behintzat 20 segundutxoko limosnatxoa eskaintzen du, ez dagoenean besterik... Guk grabazioa erositu dugu, noiz helduko ote zaigu... Heldu zaigu, entzun dugu, baina badaezpada zatitxu hori baino ez dizuegu erakutsiko. Kopirraitekin ezin da txantxetan ibili!

Gauza handi ta bere moduko bat ikusi eban Txilik Tala Goikotik beragan etorrela; baltzen baltzaz illunetan be gerixa eitten eban. Urreratu jakonian:

- Gabon adiskidia -esan eutsan Txilik-, goixetik gabiltz, goixetik.

- Nahi goix, nahi berandu, hiri zer?

- Haserrez dator mutil hau; geu be ba drogarako ezkaittuk txarrenak.

- Nor haix heu, tximista hori?

- Enakusk?

- Nik ez ondo, heure eskutzar honetako zigorra ixan ezik. Tema egingo neuke Damutu eruen bategaz diardudala. Nundik nora habil heu?

- Eztaukat barriketan iarduteko astirik; baña itaune geijago ez eittekoz erantzungo dauat. Gau guztijen nundik nora eztakidala ta neure gerixia baino beste lagun barik, ibili nabil; egun-sentija baino lehenago Oiz-barrenera jua nahi neuke, nundik baneki.

- Egun-sentija baino lenago? Mau-mau, ezta inpernuko diabrua bahintz be.

- Lagun on bat baneuko, bai

- Hori ikustiarren...

- Hator

- Baiña nik-i...

- Horretara ezker berba biko gixona haix hi

- Ez ni

- Bart heuk ez heuan eskiñi edozeiñ damuturi lagun eingo euskijola?

- Baiña...

- Atxakijak daukazak hik

- Eta zeñ tximistak dei eingo dau itxasoraterik badago?

- Eguraldi txarra, txalupak jaso ezinddaku balego, jarraituko eusket?

- Bai, zegaittik ez?

Hau esanaz ez eban Txilik puzkatxu baten aurreko laguna ikusi. Agertu jakonian, modu honetan jarraitu eben lengo autua.

- Horra hor mendebal gogorra da isla hori gaiñako baga ta olatuak.

- Tximista gorrija! Ni baiño igarle hobia haix.

- Bahator ala ez hator?

- Tira.

Perrandesek, hasarrezko autu labor hau entzun ebanian ezer adittu ez arren, Txiliñ alde urten gura ixan eban, baiña egiñ ahala eiñda be, ezeban bere burua lokatu ahal ixan: horma-kontran norbaittek inkata lez eukan gorputza. Bere paretik irago zirianian, Txiliri oles eittia otu jakon, baina ekandu txarrekotzat euki ez eijan, ixilik geldittu zan. Bera jagi-orduko Txili ta laguna San Pedron arkupera heldu zirian. Halako irudijen aurrian damutu guztijak eskuetako zigorraaz gorputza astinddu eroien; beekijan Txilik ekandu hau, ta bere laguna aurrera joiala ikusi ebanian:

- Adiskidia, esa eutsan, irudi santu baten aurrian hago. Lege oneko Damutua bahaix...

- Eta hiri zer?

- Niri neuri ezer ez, baiña...

- Bilddur haix.

- Bilddur, zegaittik? Jarraituko daustak?

- Noranahi.





Mendi-bañoan burdin-ur azal-lodia dario atx bati. Baseñitafak, ur aren goitainna ihusita, ama erukañaren gonak goitua darcala uste dabe.

Debajo del monte mana de una peña agua ferruginosa de espesa capa. Los aldeanos, al ver la rojez de aquella agua, creen que la enrojece la saya de la pobre madre. Tomás Ibaroga, de Nabarra.

## 26. — ERIN DA BETIKO



ERETIVON, orain iru, lau, bostean bat urte, beste uri askotan légez, penitente-izendun batzuk gau ilunean, eskuetan zigor bat ebela eta goñirik gora biloizik, ibiltzen ekien. Arresiz inguratutako uria zan. Urtirik urteteko bost ate egozan atesi aretan eta ate bakoitzaren gan-aldean santuren baten irudia. Penitenteak irudi aren aurrean gelditu ta zigorrada ederrak artzen ebezan.

Orduan gure egun onetako antzera, goizean, iñor baino goizago, arrantzaleak yagi oi ziran ta dira. Eta euren arteko geienai penitentearen bat ikusiak bildurra sartzen eutsen. Gizon arek itxasora noiz yoa ta noiz ez yakiteko, señeru-izendun bat egoten zan, iñor baino goizago yagi ta egunero bakar-bakarrik itxasora zelangoa egotan ikustera yoa bear izaten ebana. Señeru aretzen aurrean gizon batzuk penitenteak aitata ebezan bein eta eurak ikusteak emoten eutsen bildurra.

—¡Ei ezaz bildurtuten, Txili, alakoren bat dakusanen!

## 26. — UNA VEZ Y PARA SIEMPRE (II)

Haze unos trescientos, cuatrocientos o quinientos años, solían andar en Lequeitio, como en otros muchos pueblos, en noche cerrada, algunos que se llamaban penitentes con un cilicio en la mano y desnudos de cintura arriba. La villa estaba rodeada de murallas. Cada una de ellas tenía una puerta y sobre ella la imagen de algún santo. Los penitentes se paraban frente a aquellas imágenes y se disciplinaban fuertemente.

Entonces, al igual que en nuestros días, los que más temprano se levantaban eran los pescadores. Y a la mayoría de ellos les producía miedo el ver a algún penitente. Para saber cuando tenían que ir y cuando no aquellos hombres a la mar, solía haber un alayero encargado de la misión de levantarse antes que ningún otro e ir él solo a examinar cómo estaba la mar. En presencia de aquel alayero mencionaron una vez aquellos hombres el asunto de los penitentes y el miedo que les producía el verlos.

—¡Chili, (tú no te asustes cuando ves a alguno de éstos!

Batu de **txili**

Una vez y para siempre

—¡Noi bildurte! Sarri orretarikoren bat edo beste goizaldean ikusi doat nik ¿bainu dart dart egin? Biotz ta...

—¡Yo asustarme! Con frecuencia he visto yo alguno que otro de éstos a la madrugada, ¿pero temblis? ¡Eh,

“Euskalerraren Yakintza, II”,  
R. M. Azkue, 1942

## 1942

Eta amaitzeko *Euskalerraren Yakintza* 2. liburukian (79-87 or.), 1942an, agertu zen bertsiola<sup>1</sup>, aproposa ipuin osoa erakutsi diezazuekegulako.

LEKEITION, orain iru, lau, bostean bat urte, beste uri askotan légez, penitente-izendun batzuk gau ilunean, eskuetan zigor bat ebela eta goñirik gora biloizik, ibiltzen ekien. Arresiz inguratutako uria zan. Urtirik urteteko bost ate egozan arresi aretan eta ate bakoitzaren gan-aldean santuren baten irudia. Penitenteak irudi aren aurrean gelditu ta zigorrada ederrak artzen ebezan.

Orduan gure egun onetako antzera, goizean, iñor baino goizago, arrantzaleak yagi oi ziran ta dira. Eta euren arteko geienai penitentearen bat ikusiak bildurra sartzen eutsen. Gizon arek itxasora noiz yoa ta noiz ez yakiteko, señeru-izendun bat egoten zan, iñor baino

1 Azkueren hitzak dira *Euskalerraren Yakintza* IIan: “Irakurgai eder au Euskalerraren Yakintza onen lenengo liburuaren itzaurrean aitatu zan. Gazte gaztetxo nintzala, Lekeitio bertan, Jose Francisco Maruriren ezpanetatik eldu zan nire belarrietara, laburtxoago”. Jose Francisco Marurik konta zion Azkueri ipuina hau gazte zela. Zortea izan dugu, Maruri ozta-ozta agertzen da 1825eko polizi erroldan, 15 egun bakarrik zeukan, aita Aulestian jaioa zen, baina txikitik Lekeitiora etorria, arrantzalea, eta ama bertokoa zen, jostuna. Narea kalean bizi ziren. Berririo agertuko da 1861eko erroldan, 35 urte zeukan, barberu eta zapataria zen eta badakigu idazten eta irakurtzen zekiela. Emazteak, Pia Mendazonak, irakurtzen bakarrik zekien. Hiru seme-alaba zituzten eta aita zaharra, Andres Maruri, euren bizi zen. Honek ez zekien ez idazten ez irakurtzen. Azkenik 1875eko errolda batean aurkituko dugu Jose Francisco, *Estadística de Industria y Comercio*. Bergara kaleko 26an du negozioa, zapataria eta barberua da. Barberi horretan entzungo zuen Azkuek mutikotan ipuina.

goizago yagi ta egunero bakar-bakarrik itxasora zelangoa egoan ikustera yoa bear izaten ebana. Señeru aretzen aurrean gizon batzuk penitenteak aitatu ebezan bein eta eurak ikusteak emoten eutsen bildurra.

—¿Eu ezaiz bildurtuten, Txili, alakoren bat dakusanen?

—¡Neu bildurte! Sarri orretarikoren bat edo beste goizaldean ikusi doat nik ¿bainu dart dart egin? Biotz txatxarra da, gizonak, ezgauzaitik taup taup taup egiten daben biotza.

—Ezta balio gero gauza bat esan eta beste bat egiteak. Txili: or garberdi inguruan, norberaren gerizarik bere ikusten ezta gau ilun baten, buru-utsik, ortozik eta erdi-biloizik erraldoia lako penitente andi bat begien aurrera, eu bakarrik agoala, agertu baleikik ¿ezintzake bildur izango?

—Txo: inpernuko deabruak berak, Penitente-yantziag agertuta, berari yarraituteko baliñost be, einintzake ni bildur izango, eneuskio atzera egingo. ¿Zelako biotza da taupadaka dabilen biotza? ¿Zanen batetik dingilizka daukagula uste aldozue? Urrengo goizean, beti légez izarrakaz yagita, Txili, oi ebanez, Talara itxasora ta goiak aztertzeraz yoa zanean, gauza andi ta bere moduko bat ikusi eban, Tala goikotik beraganantz etorrela. Baltzen baltzez ilunetan bére geriza egiten eban. Urreratu ddakanean

—Gabon, adiskidea —esan eutsan Txilik—: goizetik gabilz, goizetik.

—Nai goiz nai berandu jiri zer dauk?

—Asarrez dator mutil au. Gu be ba drogarako ezkozak txarrenak. ¿Nor aix eu, tximizta ori?

—¿Enakusk?

—Nik ez ondo, eure eskutzar onetako zigorra izan ezik. Egingo neu-

ke penitente eroren batez diardudala. ¿Nundik nora abil eu?

—Etxaukat barriketan iarduteko astirik; baina itaune geiago ez egi-tekotan, erantzungo dauat. Gau osoan, nundik nora eztaqidala ta neure gerizaa baiño beste lagun baga, ibili nabil. Egun sentia baino lenago Oiz-barrenera yoan nai neuke, nondik baneki. —Egun-sentia baino lenago! ¡Mau mau! Ezta inpernuko deabrua baintz bere.

—Lagun on bat baneuko, bai.

—Ori ikustearren... eeee...

—Ator.

—Baiña nik... iiii...

—Orretarazkero berba biko gizona aiz i.

—Ez ni.

—¿Bart euk ezaleuan eskini, edozein penitenteri lagun egingo euakiola?

—Baiña...

—Atxakiak, akiakulak daukazak ik.

—Eta zein tximiztak dei egingo ddok, itxasoraterik badagok?

—Eguraldi txarra, txalupak yaso ezindako itxaskia balaiegok ¿yarraituko eusket?

—Bai, ¿zegaitik ez? Au esanaz, ezaban Txilik puzkatxo baten aurreko laguna ikusi. Agertu ddakanean, modu onetan yarraitu eben lengo autua:

—Orra or mendebal gogorra ta ugarte ori gainako olatuak.

—¿Tximizta gorria! Ni baiño iragarle ohea aiz.

—¿Baator ala ezator?

—Goazan. Beingo baten eldu ziran Txili ta laguna San Pedroren makopera. Laguna aurrera yoala ikusi ebanean,

—Adiskidea —esan eutsan Txilik—, irudi guren baten aurrean ago. Lege oneko penitentea baaiz...

—¿Eta iri zer?

—Niri neuri ezer ez, baiña...

—¿Bildur alaiz?

—Bildur ¿zegaitik?

—¿Yarraituko daustak?

—Noranai.

Andik bigarren makopera, uriaren erdikora, bide andirik ezeuken eta astirotxoago yoan ta bere laster elduko ziran. Txilik orduantxe bere ezaban bere laguna gorputza zigorketan ikusi ta eskuak kaltzerpean ebazala, itz onék esan eutsazan.

—Euk eure gorpuztar ori astinduteko adorerik ezpadaukak, neuk, eskuak berotutearren, zigortuko dauat, bardin baderitxak. —¿Berotuteko gogoa daukak? Berotuko aiz. Arira eztaozan itauneak gizon txakilak egiten ddoezak.

—Ba eu arrain ona eteaizan...

—¿Bildur aiz?

—¿Zegaitik diraustak ori?

—¿Bildur aiz?

—Ez, enok bildur. Irugarren uri-atea *Atea* deritxan aldaurian egoan, uritik Amoroto-alderako bidean. Mako aren goitxoan Andra Mariaren irudia agiri zan. An bére, zigorraz ezer egin bagarik eta burua lotsaz légez makurtuta, etzan gelditu Txiliren laguna. Txilik orduan bére zerbait esango eutsan, besteak, katamotzaren begiak langoxe sutuakaz albokera begiratuaz: «Aurrera», esan ezpaleutso. Uriko azken-etxea lepo-aldean itzi ebanean, Txilik (besteari zerbait-

erasotearren alzan) izerditan egoala ta astirotxoago ibili ta bere elduko zirala esan eutsan.

—¿Izertia! Bildur aizalako ago i, oskil ori, izerditan.

Bere buruagaitik oskila entzun ebanean esku biak ukabildu ta astakeriren bat esan eta egitera yoian señeru indartsua; baina lagunaren atzetan amar erpe, amuak langoxe okerrak, ekusazala begitandu dda-kan eta arrituta agoa zabalik eta arnasa baga gelditu zan.

—¿Bildur aiz, oskil epel ori?

—Ez —arrausika legez erantzun eban; eta zelan ezekiala orduantxe emon eutsan agoak bere bizitza guztiko lenengo guzurra.

Txilik uste eban baino nekezago ta beranduago eldu ziran Kristo Portalekora. Araezkero, Penitente-ezaugarririk erakutsi ezik, zeutsan aurrera lagunduko, alperrik bestearen agotik txakila nai oskila nai bildurtia nai beste edozein iraun entzun. Eldu ziran noizbait. Laguna, Jaungoikozko irudi kurutzeratua ez ikustearren, metarri (pilara) atzetik aurreratu zan. Txilik zerbait esateko gurariaz, burua yaso ta begiak zabaldu ebazanean, auntz-musturra ta aginak bestearen arpegian begitandu ddakazan; eta katai batek emoniko gili-gilia langoxea eukalakoan, eskuaz garondoa igortzi ebanaz batera, barre-algara izugarri bat egin eutsan auntz-arpegidunak.

—¿Bildur aiz? —itandu eutsan, baina ez gizon-berbakaz, auntza- ren ijijiz baino. Txilik ez eutsan ezer erantzun. Geroago ta bizkorrago yoazan biak, alkarren leian, eritxi baten. Auriako bide medarretik Arrupainen zear, Leako zubian irago bear izan eben Olaeta atzean izteko; eta aingiratako toki arek bere etxeko zurkuluak baizen ondo yakinarren, ezaban Txilik ezagutu ez etxerik, ez ibairik, ez zubirik, ez olarik. Oibar-ingurura eldu ziranean, kaltzak aratu ta errosario-garauak atara ta amabost arenak esaten asi zan.

—Alperrik —esan eutsan lagunak. Berak, lotorditak itzarrita bailegoan agoa zabalik begiratu eutsan.

—Alperrik —esan eutsan besteak bigarrenez.

Txili, sugoiaren aurrean txoriak egoten oi diran antzera, begiak itxi ezinik egoan gizagaixoa: biak geldi, biak alkarri begira. Bildurra bera aragiz yantzi ta gizondu al balitz, elitzake Txili egoan baizen margul ta zurbil egongo. Damututzakoak burpil baten bira biraka eun arpegi balebilz langoxe taiua erakusten eutsan Txiliri: txakurrik begi-erre ta sur-zapalenak, akerrik zâr ta bizartsuenak, urderik itxusi ta ziki-nenak eta beste euron antzeko abere-mueta askok aren sorburuan burua agertuteko egiunea egin ebela zirudian.

Txili ¡jerrukarria!!, yaustera yoian, bestea karkar kar barre eginda lengo itaunea azkenez zuzendu eutsanean:

—Txili, sendokote orrek, entzuik ondo ta erantzuik bein da betiko: ¿bildur aiz?

—Antiguako Ama Maria, bildur naiz —esan eta Oibarko baseliza-txoaren atea eskuakaz yoaz, auzpaz barrura yausi zan.

Penitentetzakoak orduan bere erraietako orroe arrigarri batez

—Txili, esan eutsan: urrengan baketan laga egiok inpernuko deabruari. Neu nok. Ona emen ezaugarria. Neurea intzan, neurea. Eske-rrak emon egiozak eskuetako orri ta agoan lekuari.

Au esanda ots andi bat emon eutsan ateari eta bere eskuaren bost erpetzarren atzak antxe iratsirik itzi ebazan. Oibarren, Gizaburuaga-aurretxoan eta ibai-ondoan gaur bere baselizatxo zutunik eta osorik datza; baina barriraztua.

Txerrenen erpe-atzik ezta bere atean aspaldion ageri.



1895

## Vizcaytik Bizkaira

Azkuek ez zuen mugarik. Lehen euskal zartzuela idatzi zuen, eta ez zen izango azkena. Gai eztabadaitsua aukeratu zuen, euskal nortasunaren galera eta haren errudunen artean euskara mespretxatzen zuen erdal eskola, erdal ohi-turak, kanpoko agintariak... zeuden. Bide batez Espainiako politikaren ustelkeria, soldadutzaren injustizia... salatu zituen<sup>1</sup>. Obra honetan inoiz baino erradikalago agertzen da Azkue, normalean gizon *tenplaua*. Laupabost hilabetez Sabino Aranaren alderdira hurbildu zen, Euzkeldun Batzokija zapaldu zuen, baina badirudi Sotaren Euskalerra Elkartetik hurbilago zegoela harekin amaitu baitzuen. Gero politika erabat alboan utzi zuen.

Jurgi Kintanaren lana txalogarria da baina ez dakit ondo dabilen idazten duenean Sabino Aranarengandik urrundu zela, besteak beste, Azkuek Lekeitiora ez zuelako ekarri nahi izan zartzuela hori. Jakingo du Kintanak urte horretako Sanpedroetan 1895eko ekainaren 29 eta 30ean, Lekeitioan antzestu zela Zabalekua hotelak zuen antzokian<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> El Noticiero Bilbaino, 1895-2-3

### Vizcaytik Bizkaira

El acontecimiento de ayer fué el estreno de la zarzuela euskara en tres actos, letra y música del virtuoso presbítero Don Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue.

A las cuatro y media de la tarde el amplio salón-teatro del Patronato de Obreros, era insuficiente para contener tanta gente que ávida de presenciar tal novedad, pugnaba por colocarse de la mejor manera posible, y á los pocos momentos el distinguido maestro señor Valle dirigía nutrida orquesta, que interpreto admirablemente su preciosa sinfonía, habiendo recogido gran cosecha de aplausos.

El argumento está basado en el servicio militar que nos regaló el partido conservador, donde resalta el poco apego que tienen al hogar y á las tradiciones de esta pequeña patria los jóvenes licenciados, cuando vuelven del servicio, y la relajación de costumbres desde que los candidatos empezaron á comprar votos por dinero.

Se ocupa también de los maestros de escuela que, tratando de secundar las disposiciones del Gobierno central contra nuestra querida lengua, prohíben á sus alumnos hablar en bascuence.

La obra abunda en canciones y zortzicos sumamente originales, que el numeroso y distinguido público hizo repetir.

El tercer acto concluye con el Guernikako-arbola, que fué coreado por toda la concurrencia, la cual prorrumpió al bajar el telón en ¡Vivan los Fueros! ¡Viva Vizcaya!

A pesar de su resistencia, el autor de dicha obra tuvo que salir varias veces al escenario, mientras el público le aplaudía y agitaba pañuelos y sombreros.

Enviamos nuestro más sincero aplauso á nuestro respetable amigo Sr. Azkue ilustrado profesor de la cátedra de bascuence, á sus aprovechados alumnos, protagonistas en esta zarzuela, al ilustre maestro Señor Valle, y a todos los demás

<sup>2</sup> El Nervion, 1895-6-29

### A LEQUEITIO

En el vapor remolcador "Algorta", que ha salido esta mañana de nuestro puerto con destino al de Lequeitio, han ido la mayor parte de los jóvenes que compondrán la orquesta, así como los actores que han de tomar parte en la función de esta noche y la de mañana, que se verificará en el teatro de Lequeitio.

En ambos días, se representará la zarzuela vascongada titulada "Bizcaytik Bizcaira", escrita en idioma euskaro, cuyo autor es el presbítero don Resurrección María de Azcue, la cual se estrenó en el patronato de los obreros de la calle de Iturrubide, en el mes último de Diciembre.

Su autor, según hemos oído, ha introducido en la obra ciertas reformas necesarias, completándola de esta manera las deficiencias que encontró el día del estreno.

Los mismos elementos que en esta villa tomaron parte en la función, se han prestado gustosos y en obsequio al autor de la obra, á ir á Lequeitio, así que auguramos desde luego



"Vizcaytik Bizkaira",  
R. M. Azkue, 1895

Sabino Arana -ezkerrekoa eserita- eta R. M. Azkue - eskumakoa- Vizcaytik Bizkairako zuzendari eta antzezleekin zartzuelaren arrakasta ospatzen, 1895. Euskaltzaindiako Azkue biblioteka eta artxiboa

Zartzuelako herria ez da aipatzen, ez da esaten non gertatzen diren ekintzak, Bizkaiko edo Euskal-Herriko edozein herrik balioko luke egoera berbera bizi baitzuten denek, baina berba egiteko moduak, itsasoko kantek... Lekeitio gogorarazten digute. Lekeitio berriro antzestu zen 1984. urtean, lekeitiarrak eta gazteak -orduan- ginela antzezleak.

que la interpretación de la misma alcanzará los mismos lisonjeros resultados que los aquí obtenidos.

El bonito teatro de Lequeitio, situado en el interior de una fonda, es capaz para unas docientas ó trescientas personas y según nuestras noticias, tal es el entusiasmo que reina en aquella villa, que apenas quedan billetes disponibles para atender á los compromisos de las personas que desean acudir á presenciar esta función.

A instancias reiteradas de sus amigos, el maestro señor Valle se ha encargado de la dirección de la orquesta; para lo cual saldrá de esta villa en el tren de la tarde.

Varios entusiastas vascongados de esta villa se han trasladado á Lequeitio, con objeto de asistir á estas representaciones.

## Txirristadak

BEDERATZIGARRENA (Euskalzale, 1897-3-14)

**Anton da aita**

(...) Euren berba egikera Lekeitio aldekoak eritxi neutsen; "Ji-ja, ji ja..." ziarduen-da. Ona emen euren autua. -Eztakit ezeren barririk, Kosepantoñin esakeriaz esan daidan. Uste oso osuan etorri gara, Aita; baiña j̄Hjuum!! Eztot nik han usaiñ onik artu.

-Gero ta gero be eruan biar etedeuskue ba!

j̄Ai, neure Txomintxu lazтана!

-Txakurra izan banintz be... Modu onian berba egiñ dautset ba nik ba.

Goizeko zazpi ta erdijetan ots egiñ dot Diputau horren etxian. Neskatilla gazte euskaldun batek atia zabaldu deust. Euskalduna naizana, berbetan asiorduko igarri eida: nik eztakit nun, da arako zetara noian esan dautsadanian, purrustadaka ta algaraka abija da.

-Neska gangarren bat izango da ori.

- Neuk be orixe uste izan dot, baiña ez. Goizegi izan dalako barre egiñ dabela esan deust; eta beste ordu bi igarota be ezala Don Kulian edo Borrego edo ori ikusteko moduan egongo. ¿Zetarako da ezetz esatia? Ondo artu nau Diputaueneko otseñ orrek, ondo, biar danez. j̄Eleuke euskaldunak izan biar!!

-¿Da zer geijago?

-Itxaron egin biar izan dot. ¿Beste ordu bitan zer egiteko?

-¿Da?

-Noian or ziar nora edo nora (esan dot neure artian), beñ Bilbora etorriezkeru, ikusi daigun zer edo zer.

-¿Da?

-Da da ¿beti da? Atzera ta aurrera, ibilli ta ibilli, begiratu ona ta begiratu orra, ikusi au ta ikusi ori: onelantxe igaro jat goiz-erdija. Da ¡alegija! ¡Ikusi barik gelditu enaizanean!

- Begiratu, Aita, nire gerri oni.

-¿Da zer?-Onen lodijerako ankaak euki dabez, guzurrik esan barik, nik ikusiriko zaldi batzuk. Eurak ikustearen baino izan ezik be, pozik etorri leike Bilbora.

...Itxi eizak, Anton, barri orrek etxe aldera goizanean. Txominen ganian, neure Txomin ederren arazuagaitik zzer esan deusk Diputatuak?

-Esango dogu ori be. ¡Alako zaldirik! Eneban siniztuko iñok esan baleust, ezta... Pla pla pla ibilten izan dira. Bauke arek indarra baiño ezta. Pla pla pla: onetaraxe, Aita. Burdijak be gero euren ezterijakuak edo gainakuak dandarrez eruaten dabez: gela au baiño andijaguak etedirian nago. ¿Zemat zorrokada gari uste dozu, Aita, sartu leikezala burditzar aretan?

-¿Beti Aita ta beti barriketia? Anton oooo.

-Txomiñen gora-bera onek ondo urtengo baleuskit, alakoxe zaldi mardo mamintsu andi eder bat erosiko neuke.

-¡Ene San Antonio ta mutila! Galduak gara, guriak egiñ dau, Anton. Ardantegiren baten sartu aiz i, ikusgura barritsu ori. Alperrik izango dok ukatutia: jota ago i, jota. Erija-egunetako katua daukak ik, zirimara buruariñ orrek.

-Orrenbeste beste... be ez, baiña...

-Alper dala ukatutia.

-Ona ba. ibilli ta ibilli azpertz naizanian da denda bateko arraiñ erre-usaiña suurretan ziar sartu jatanian...

edonok egingo leukiena neuk be.

-Banajekijan nik. Mizke asiriko umia, edonun agiri. Amen juean ire Aita zaar au orretariko asmo andi barrik. Goizeko izarretarako jagiarren, barua ausi baiño besterik ejuat egiñ, gosalduteko naijagok ondiño. ¿Ai geure gazetetasuna ta geure mentasuna! ¿Arek zirian urtiak! Gaurko gaztiok jan-edanerako, or da emen ibilteko ta oskillkerijetarako baiño eztoze balijo.

-Gizonak aaaa. Beñ Bilbora etorri ezkeru...

-Bilbon naijagok neu be.

-Arraiñ-usaiñ gozo eztija artu dodanian, barru guztija zabal zabal egiñ jat.

-¿Bai e?

-¡Alakorik! ¡Arranua! Ondo begiratu dot neuk barrura, andiki-tokija eritxi dautsat, eta karutxu izango dala be otu jat, baiña!... "¡laurra!! gaztiagotan eztok egingo, Anton; beingua gora-bera izango algozak, gaijoiazan barrura."

Auxe esan dot neure artian, da beti bertako bezerua izan banintz lakoxe lautasunaz "egun on" esan dautset; "egun on" erantzun dauste; ta euskeraz, gizona, euskeraz Bilbon. Ondo artu nabe, Aita.

-¡Madari, madarija! baiña ni beti lenera.

¿Da Txomiñen ganeko "kintako" arazua?

-Egon beñ, ezkaroiar urak be ta. Ondo artu nabe, sekula iñor ondo artua izan bada. Larrosia lakoxe arpegi ederrekua da ugazaba-andria, arrautza-perretxikua berberbera. ¡Jangoikuak urte on askotan gorde daijola bizija! Kosepantoni neure emaztia be mardua ta galanta dot, baiña a be...

-¡Madari ma!... Esango neukez esapide gogorrek. ¡Gizon onen barritsua ta ganora bakua! ¿Neu beste beñ eugaz iñora etorri? Uuuut.

-Ori esanarren eeeee...

-Tira tira amaitu daigun autu au. Errial zidarren bat itxi biar izango dok ¿ezete?

-Egija esateko, errial bi ta erdi kendu daustez ¿Baiña zelako gosarija?

-¡Errial bi ta erdi! Aitiaren, Semiaren ¿lotsa be ezaz lotsa be? Ondiño geijago entzungo dot. Errial bi ta erdi, dirauste, errial bi ta erdi. Muitiz, Muitiz zaarra: erruki aut zigaxo ori. Ekiñ ekiñ urrungan be laijetan da zimaurgiñen da atxurketan da bedarra ebaten. Gorde gorde lauzuriko-laumarikuak. Kosepantoni Muitizko, neure erran beraketz-atala: eguzkijaz batera juan ai goizian goizian urira, ortuarijak saltzeko arduriaz. Bai, Kosepantoni; atara izerdija lodi; aurrerantzian be soñeko zaarren magaletan dindirri ta brijal da pistañak agiri izango jakuz guri. Kutxa-onduan zurikorik badago, nok urundu bago. Gagozan gu gaurrarte legez begijak txikortuarte biarrian, Anton basto trabenarik trabena ibilli daiñ.

Onetan kinto batzuk agertu zirean santzoka ta ujuika ta negarrez egon bear leukeana barrezka ez ikustearren, ardantegitik urten neban.

AMARGARRENA (Euskalzale, 1897-3-25/4-1)

**Durangoko burdin-bidean- Elantxobera bidean**

(...) Onetan atea ots baten zabaldu eben, zarata andi bat eginaz; da konduktore bat agertu zan, eskuturretik emakuma bat ekarrela.

- *Aquí los de tercera; y si hablas mucho, á la perrera.*

-¿Nor da berau, arpegi andijau?

- *Aqui, aqui.*

¿Aki diño beronek, aki? Aki antxiña il tzan "koittara", Lekitoko "ospizjauan".

- *Calla esa bocota desvergonzada.*

-¿Desberguentzaria neu? Etzenduke esango ori, Tala goikuan bazengoz. Aaamen zer ikusi biar dogun bero-negaz. *Segundia* dala. ¿Nok jakik ba, zein dan segundia, erderaz jagozak guztiak-eta?

- *Si no guardas ese pico, yo te lo hare guardar.*

- *E Usté, otros tambien-e ya saben á pegar,* esan eban Kalistrok.

-¿Y á tí quién te da vela en este entierro?

- *Uste tambien no pegar á mukeres.*

(...) Arteagara zaldi-burdia eldu baiño lentxuago aurkitu eben lengo emakuma Lekeitioarra, Florentinok urrunetik ezutu eban, da asi iakon:

"Lekeitijo ¿ezaldago kotxerako dirurik?"

-¿Kotxian eure ondun juateko? As as orreri, Lekeitia-rrak larrari (?). Aldatzera eldu gaixanian ikusiko dogu nor dan ariñago, on poparian zoiaze baiña.

(...) Ekiñen ekiñaz igon eragin eutsen zaldi-burdira lekeitia-rrari.

Kalistro, eskuetara txistua bota, txapela estutu ta gero guztiz gogo argiaz asi zan esaten:

"Lekeitijo. ¿Zelan don ixena?"

-Okela-gixena.

- ¿Zer? ¿Asarratuta al-ago nigaz?

-Ez asarre, ez adiskide. Berbetako gogua baraukak (1), kotxeruak ixaten dira manduari be berba egitten daki-jenak.

-¿Zetan juan az Bilbora? ¿Burua erakusten?

-Orixe bai; burua erakusten beintzat, beste zeregin barik. ¿Zer ba? Galantak dirianak be aurrera, ta gu be aurrera.

-Ta Lekeitijon ¿ze barri da?

-Neu enaz *periorikua* (1)

-Umore txarreko ator. ¿Piper miñak jan aldonaz?

-¿Piperrak neuk Bilbon? Orrek etxian jaten dira, besterik eztagonian.

¿Lekeitijo, eztogu berba gozo bat igandik gaur entzungo?

-Elantxobe, *trenian* adarra jo reustazue (1) ederto ta eztauk ezer esateko. Ezer jakin nai dabena, ondo esan daijala lenengo, or eu ta Maketekoa kalle kallekoa Gernike koa (2) alkarreri ziñuka ibilli barik. ¿Irukua rauke (1) onek otsian otsian? Kiñu beti. Batekua be etxake juango bein ero (1) bein, miña atarateko.

-Gaztiak ¿nongua da neskato au? Ezijozue jaramonik egiñ, belarri minberaduna da-ta, esan eban atsoak.

-¿Zeu nungua zara ba?

-Elantxobekua ni.

-Baita ni barriz lekittarra.

-Agiri don, ene alabia.

-¿E? !!Amen nun egon leikien gauzia!! ¿Nun agiri dot ba? ¿Surrian?

-Lekeitia-rrak urtentxiak izaten zarie.

-¿Nor da berau? Baita elantxobetarrak barriz... bakit neuk.

-¿Zer, zer?

-Sorgiñak.

-¿Zer da berba hori? Lekeitio, lenez ganerabe... ondo lotsa galdukoa az eu beintzat.

-¿Neu olakua? Baita zu barriz Elantxobe milla *probe*.

1 Lekeitioko Arranegi-aldean Eibartarren antzera d-n ordez r esaten dabe sarri: *baraukak, periorikua, ero, rauke... badaukak, periodikua*, edo, *dauke* esan bearrean.

2 Gernikarrai Lekeitia-rrak destaiñaz esaten deutse: "Maketekoa, kalle kallekoa, Gernikekoa."

1911

## Ortzuri

Azkuek zaletasun bat bazuen, musika zen hori. Horregatik *Ortzuri* eta *Urlo* operak idatzi zituen, jakina biak euskaraz, baina ez zuten arrakastarik izan. Dirutza galdu zuen Azkuek, arrebeke ere lagundu egin behar izan zioten. Kolpe handia izan zen harentzat -berak aitortuta- eta operagintza utzi egin zuen. Asmo handiak izan zituen, euskal opera nazionala sortu nahi izan zuen baina ez zuen asmatu. Energia, pasioa, dirua... batzuetan ez dira nahikoak. *Ortzuri* opera Mendiri herri arrantzalean kokatzen da. Zer esanik ez dago Lekeitio dela. Horregatik bidaliko dio *Ortzuri* operako libretoa Telesforo Aranzadiri, honek atabakaren gaineko artikulurako laguntza eskatzen diorean. Mendiri Lekeitio eta mendiritarrak lekeitiarrak izango dira baina erabiltzen duen hizkuntza oraingoan ez da gurea, gipuzkera baizik, agian opera nazionalak euskara garbi, estandarra behar zuelako? Bestela, patroiek, arrantzaleek, dei egitekoek -gora Jaungoikoaren izenian!-, Artzabal, Zatika edo Laitiz izeneko pertsonaiek, Mendiri deskribatzen dituzten akotazioek, Idurriko agurearen aipamenak... Lekeitio gomutarazten digute.

Azalak dena esaten du: Lekeitioko atabaka eta kofradiako bandera ageri dira, gaur egun Bilboko Euskal Museoa Azkuek berak emanda.



Ortzuri, R. M. Azkue, 1909-10



Euskal-Erria aldizkaria, 1911ko lehen seihilekoa, J.R. Belausteguibeitia

564 EUSKAL-ERRIA

# ITSASORA

PRIMER CUADRO DE LA ÓPERA VASCA ORTZURI

— DE —

D. RESURRECCIÓN MARÍA DE AZCUE, Pbro.

UN lequeitiano, plétórico de inspiración y en pleno periodo de juventud (artística y físicamente considerado), Buenaventura Zapirain, inició con su *Chantón Pi-perrí*, las primeras representaciones de ópera vasca en el grandioso coliseo de Arriaga.



Otro lequeitiano ilustre, de temperamento de artista, impetuoso, ardiente, tenaz, D. Resurrección María de Azcue, ha coronado con el triunfo de su cuadro de ópera *Itsasora*, el ciclo brillante de representaciones vascas, con que la benemérita Sociedad Coral ha reverdecido este año los viejos laureles de sus artísticos triunfos.

No es el Sr. Azcue, en la Euskal-erria, ningún desconocido. Sus no interrumpidos trabajos en pro de nuestra adorada lengua, han rodeado su nombre de prestigiosa... popularidad.

Dedicado con afán... competetísimo é

**Teatro Arriaga**  
Sociedad Coral de Bilbao  
Mañana martes a las nueve de la noche, 1.º y 2.º actos de  
**Lide - ta - Ixidor**  
y estreno de  
**ITSASORA**  
primera parte de la ópera «Ortzuri» letra y música de don Resurrección María de Azcue.  
Los señores socios tendrán reservadas localidades en el domicilio de la Sociedad mañana hasta las doce del día.

Kofradiako bandera eta atabaka, Euskal Museoa, R.M. Azkueren dohaintza



## El pueblo Vasco, 1911-6-9

### OPERA VASCA

#### Itsasora

La Sociedad Coral de Bilbao, que tantos plácemes viene recibiendo por sus eficaces é imponderables esfuerzos en pró de la música vasca, anuncia, como final de su brillante temporada artística de este año, el estreno de "Itsasora", primera parte del drama lírico "Ortzuri", letra y música de don Resurrección María de Azkue.

La espectación que, entre los buenos aficionados de nuestro pueblo, ha despertado el estreno de la mencionada obra, queda plenamente significada por la extraordinaria demanda de localidades recibida en la Coral.

Sin aventurar juicio alguno acerca de la nueva producción del señor Azkue, creemos que ha de responder á las fundadas esperanzas que de tan distinguido autor se tienen; si bien las nuevas orientaciones que en "Ortzuri" constituyen el fundamento integral de la obra, y muy diferentes de las seguidas por el señor Azkue, en sus anteriores y aplaudidas composiciones, han de dar lugar á encontrados comentarios.

De todos modos, trátase de un drama lírico sabiamente concebido, y que contiene innegables bellezas melódicas, y el público y la crítica, han de decirnos, dentro de breves días, la última palabra acerca de este estreno verdaderamente sensacional.

Itsasora 1911ko ekainaren 13an estreinatu zen baina Ortzuriren zati bat baino ez zen (Primer cuadro de la ópera vasca Itsasora). Arazoak izan zituzten opera osoa antzetzeko eta ez dugu uste inoiz osorik antzetzutunik. Ez zuen "zorterik" izan operekin Azkuek, agian herrikideak ez zeudelako presatuta inportatu nahi izan zuen opera estilorako.

*Euskal-Erria* aldizkariko (1911ko lehen sei hilabetea) J. R. Belausteguibeitiak idatzi zuen kronika luze eta mamitsutik zatitxoak aukeratu ditugu:

*Es la noche del 13 de Junio.*

*Asistimos en el Teatro Arriaga al estreno de Itsasora. La sala se halla rebosante de público entusiasta, que espera ansioso el principio del acto. La expectación es inmensa. No se trata de una pastoral más ó menos brillante; vamos á presenciar el estreno de una ópera en toda la extensión de la palabra.*

*El joven maestro Guridi ocupa su puesto al frente de la orquesta, y un silencio sepulcral impera al momento en la sala.*

*Empieza la obra...*

Hasi zen ba opera, hainbeste lan eta ilusio eskatu zuen opera, eta arrakasta izan zuela irakurri dugu baina bainekin...

Guri dekoratuak interesatzen zaizkigu, Lekeitio-Mendiri ikusi nahi genuen-eta<sup>1</sup>, baina Minzorrotz eta Ortzurirekin

<sup>1</sup> Euskal-Erria, 1911ko lehen sei hilabetea: "El autor de tal maravilla es D. Manuel Losada, artista de antigua y bien cimentada fama, y él ha dirigido también toda la parte escénica de la obra.

Familiarizado con los novísimos procedimientos, ha procurado aclimatar en nuestro ambiente, ciertas formas superiores de arte decorativa, y ha llevado á cabo la composición con plástica, con luz, con armonías de cuadro.

Alguien ha creído reconocer en la decoración, la vista del pintoresco puerto de Lequeitio



Novedades, 1911-6-18

konformatu beharko dugu. Salomé Bas (Ortzuri) eta Celia Badenes (Minzorrotz) ageri dira *Novedades* aldizkariko argazki horretan. Agertuko ote da noizbait Lekeitio-Mendiri?

Gehiago jakin nahi duenarentzat interesgarriak dira *El Pueblo Vasco* (1911-6-14) egunkariako kritika musikala eta *Revista musical* (1911ko ekaina) aldizkarikoa.

reproducido con la verdad, fidelidad y exactitud de una fotografía; pero nos dicen que es el puerto de Mendiri, y habrá que creerlo. Pero, cómo se parece al otro.

En el fondo de la decoración, aparece el mar en movimiento, y rompiendo el oleaje en las orillas, merced á una película expresamente impresionada para esta obra y que se proyecta desde el interior".

*Revista musical*, 1911ko ekaina, Ignacio Zubialderen hitzak: "El pintor bilbaíno, señor Losada, miembro de la Junta, y á quien ésta encomendó todo lo referente á la mise en scene, se ha inspirado en la nueva estética teatral de los rusos, creando un cuadro en el que se armonizan la luz, la decoración y el vestuario para presentarnos la realidad poetizada en un espectáculo de ensueño.

Aquel muelle de puerto, en que sucede el primer acto de Ortzuri, durante los momentos que preceden al amanecer; la luz violeta reflejada en las blusas corinto de los pescadores; la artística agrupación de las masas; la minuciosa propiedad en los accesorios, y, en el fondo, aquel mar, que el cinematógrafo nos presentaba vivo, rompiendo incesante en las rocas, todo esto fué una visión inolvidable un vislumbre de aquella fusión íntima de todas las bellas artes en el drama lírico que Wagner debió contentarse con soñar".

# ORTZURI LENENGO ATALA

Mendiriko kayan, Bizkaiko itxasoan.



## LENENGO AGERRALDIA

(Mendiriko kaya. Izartura ederra. Udaberriko goizaldea. Laurak inguruan. Agertoyala jasoe-ran. Txili ta lau ugarikadun ozta-ozta ikusiak izango dira agertokian, beren artean Artzabal, argiontzi bana eskuetan dutela. Kai-gaiñean, ikuslén aurrez aur, barren-barrenean, arrizko kurutze andi bat agiri da.)

ARTZABALEK. ¡Eguraldi onen ederra!

TXILIK. ¡Hmm! Etzekiat. ¿Ezaldakutsue argi, odeiertzean, ekaitzaren ernamuiñ beltza? ¿eta zororik nai zendukete gaur itxasora irtetzea?

ELIAN. Bai guk, berealaxe.

ARTZABALEK. Txoriak galazia bezalaxe, ekaitz-ernamuiñ ori jatera, latsaize atsegiña poparean degula, belak bete-betea goazen kalarara.

TXILIK. Ez gaur, ez batzar andiari ots eta atabakak itz egin gabe. (Txili kalealdera poliki doa.)

ARTZABALEK. ¿Zertara oa, Txili, buru-gogor ori?

TXILIK. Laster jakingo dezute, tximiztok. (Ayenatzen da.)

ARTZABALEK. Eguzkiaren guar aurrenak zurituko dizkigu ire ernamuiñ beltz ori (Izarretara begira luzaro.)

TXILIK. (Kale-artean.) Simon, ator Talayara. Antonio Mari, ator Talayara, Pedro Juan, Anton, Txanbolin, Juan Blas, Berdel: zatozte guztiok Talayara bizkor.

BATEK. Lepozaletu zaigu Txili.

ARTZABALEK. ¿Zärtzaroan nor eztek lepozale?

TXILIK. (Atabaka erakutsiaz) Ona emen, ona emen buruzpidea ezbayetan ematen digun adiskidea, asabengandikako atabaka.

ARTZABALEK. Izarrak karkar aritu dituk

atabaka orri begira. (Arrast bat irazeki beza) Galgot-aize gozoa arrast onen gar ezereztxo au itzaltzeko indar gabe dator. Gaurko eguraldi au zart igarteko, ezuen izaki orren bearrrik. Txapel-zuloka ari gaitezen gu orain, Txili, Txili lagun zàrra. Txapel bada...

ELIAN. ¿Zer?

...

TXILIK. (Atabaka eskuan duela) Ezker, etxea, eskubi dezute ugarika. Tori goronbillak ta izan zaitezte gizon. (Bi argiontziren erdian, arrizko kurutzearen béko aldean utziko du Txilik atabaká; ta ugaridunak, ogeitalaurak, sartuko dituzte goronbillak atabakan; ogeita bik ugarikaldean.)

ARTZABALEK. (Goronbillak atabakatatuta-koan.) Orain zenbaitzak ik.

TXILIK. ¿Begirik ezaldek, odoiertza goibel ikusteko? (Zenbaitzen asi bite). Zazpi... zortzi... amar... amalau... amasei... ogei... ogei milla tximistarekin. (Jaurtiki bitza goronbillak.)

ELIAN. Itxasora

TXILIK. Gizonak: ¡bi ordu barru oro etxera begira egon bayetz! ¡Oro bizirik ezetz!

ARTZABALEK. (Gogor) Zakur orrek ¿zer diok?

...

## BIGARREN AGERRALDIA DEI EGITEKOEN ALDARRIAK KALE-ARTEAN

(Mendirin kalarako ugarika guztiak dei egiteko emakume bana daukate. Batzarreko ugarikadunak itxasoratea erabaki oi duteneko-koxe, asten dira berak aldarrika "Urlia: gora Jaungoikoaren izenean.")

MINZORROTZEK. Jose Lorentzo: gora Jaungoikoaren izenean.

MARI ANDRESEK. Martin ipar otzarena: gora Jaungoikoaren izenean.

MARI BATIK. Simontxo: gora Jaungoikoaren izenean.

MINZORROTZEK. Antonio Paitarzale

...



# BIGARREN ATALA

## HIRUGARREN AGERRALDIA EMAKUMEAK, MUTIKOAK ETSA (sic) GEROAGO TXILI

(Mutikoak bi lerrotan, burutsik, ager bitez. Aurretik Makoliñek gudoyal bat zurrun batean bekar, Letainia oyu eginda bijoaz itxasaldera, geroago berriz agertzeko.)

MARI ANDRESEK. Or dira mutikoak.  
MARI BATIK. Goazen gu ere elizara, salbetara.  
EMAKUMEAK ELIAN. Goazen

AURRAK (Lerro batekoak).

Erruki gaitzazu, Jauna

Erruki gaitzazu, Kristo.

Erruki gaitzazu, Jauna.

Kristo, entzun guri.

Kristo, adi egon guri.

Erruki gaitzazu, Jauna

Erruki gaitzazu, Kristo.

Erruki gaitzazu, Jauna.

Kristo, entzun guri.

Kristo, adi egon guri.

Zeruetako aita Jauna

Seme, Ludiaren Erosle Jauna

Espiritu doatsu Jaungoikoa

Erruki gaitzazu,  
Jauna, arren.

Andre Maria dontsua

Jaunaren sortzaille dontsua

Neskatxen nesaktxa (sic) dontsua

Kristoren Ama

Jainkozko doayaren Ama

Ama oso garbia

Otoitz egizu  
guretzat.

MUTIKO GUZTIAK. Otoitz egizu guretzat, otoitz egizu gure Aitentzat. (Bijoiiaz aurak.)

...

Elia=coro/ernamuiñ= germen/ galazi= simiente de trigo/ latsaize= viento terral/ poparean= por la popa/ guar (gar?)= rayo/ lepozaletu= conservador/ galgot-aize= viento forano/ arrast= cerilla/ txapel-zuloka= juego de la boina y el hueco/ ugarika= lancha de pesca/ goronbillak= bolas.

Manuel Losadaren pastelak. Baliteke Ortzuri antzezlanerako dekoratuetarako zirriborroak izatea.

## ZEÑERO ZANTAR LOTSABAGIA

### TRAOLA

Traola, traola, traola, jujia  
itsasorako treotzaria.  
Señero zantar lotsabagia  
beti itsasorako deia (ai deia)  
andra ederrak ohian itxita  
txaputxeruen kontura

**1801** aldean **Humboldten** *Die Vasken...* liburuan zeñeruak eta dei egitekoak aipatu:

Al rayar el día van dos llamados Señeros a la pequeña atalaya de junto al puerto (la mayor de arriba está alejada una media hora) y se informan del tiempo y de la mar. Si es tormentoso, no dejan salir ningún pescador. Si hay esperanza para el día, reúnen a las muchachas llamasoras, que deben despertar a los pescadores, deliberan todavía otra vez, y envían luego a las muchachas, en número de unas veinte. Entonces resuena una llamada, Levántate en el nombre de Dios! por todas las callejas de la villa; los pescadores y sus ayudantes se congregan, los patronos conferencian unos con otros, y la mayoría de votos decide, si se debe salir a la mar o no.

**1858an Cavanillesen** *Lequeitio en 1857* liburuan eskolako umeen prozesioa aipatu:

La cofradía de la gente de mar dá á cada niño, el 25 de Julio, un pan de á libra y una cuarta parte de un queso, en retribución de un servicio que prestan.

¿Quereis saber cual es? Cuando el mar se embravece, cuando se teme que peligen los barcos, salen los niños de la escuela, solos, sin maestro, precedidos por una cruz y un pendon verde, y rezando, procesionalmente se dirigen á la atalaya para implorar de Dios que aplaque las iras del mar. Lo he presenciado: ¡qué espectáculo tan tierno! ¡qué alta significación!... La inocencia y solo lo inocencia interpuesta como dice uno de nuestros antiguos poetas,

entre las iras del cielo  
y los pecados del mundo.

Aquellos niños imploran por sus padres que estan en el mar, y levantan sus manitas á Dios para pedirle que los libre de la horfandad y de la consiguiente miseria...

**1879ko naufragioan** eskolako umeen erre-guak:

Correspondencia particular

Lequeitio 9 de enero

Sr. Director de

EL NOTICIERO BILBAINO

Apreciable amigo: Por los telégramas que dirigí á V. en la tarde de ayer ha podido suponer el pánico producido en este puerto á consecuencia del huracan desarrollado en la mañana del mismo día. Daré á V. algunos detalles de lo ocurrido, si bien á vuela pluma, y bajo la impresion que todos hemos experimentado.

Serian las seis de la mañana cuando con viento de levante y mar bella, aunque algo agitada por el mismo, se hizo á la vela toda la cofradía de pescadores. A las nueve cambió de repente el viento al Oeste con gran fuerza y acompañado de chubascos huracanados, lo que puso en conmoción a todo el vecindario que instintivamente se dirigió a la Atalaya. Los gritos y lamentos de aquella multitud apiñada que con la vista fija en el horizonte buscaba en vano el objeto de su amor, queriendo contener la agitación de aquel espumoso Océano (sic); las preces y oraciones de los niños escolares y del venerable cabildo eclesiástico que procesionalmente habian acudido al mismo punto, formaban un conjunto desgarrador y que renuncio á describir. (El Noticiero Bilbaino 1879-1-11)

**1883ko Kofradiako memorialean** zeñerua eta talaieroa aipatu:

Señeru bi dagoz, eta oneen lanak dira: chalopak portuan zaindutia eta mariñelai deitutia onantzian, bada denporia agertzen ba da illuna, batuten ditubez patroyak, zeñak Talayatik odeiyak eta aizia esagutirik, bolachu baltzakak erabakiten dabee eskutuan chalopak urtengo badabe edo ezpadabe. Erabaki au urratekizuna da, eta au austen daben chalopai kentzen jakee dakarren arrañaren baliyua, zein gorde-ten dan Kofradiyako kaxan.

Talayerua dago señaik egiteko keediagaz portuko mendi ingurukuen goi batzuetan, eguraldiyaren biurreria adierazoten emoteko chalopai; oneen bat galduteu daneko edo ichasaldeko albuán anchoba edo sardiña pillua, Manyuya derichona, agertuten daneko.

**1893ko R. M. Azkueren** *Bein da betiko* nobelaxoan Txili zeñerua protagonista:

(...) Txili zan Perrandesek aurrez aur eukan gixona. ¿Zek jagi eragiñ eutsan ordu atan? Ezekijan mandazaiñ buru-andijak 'Txili ' seiñerua zanik, ezekijan ordu atantxe edo belutxuago Talara juan biar ixaten ebanik: ostian eze eutsan jarraituko.

Txiliek egikixunez eguraldija egunian egunian aster-tu biar ixaten eban. Onetarako ' zeñi eurittan zeñi aterritan ' goixaldia baiño askozaz lenago juaten zan Talara; an ixarrai begiratu ' odeijen azatza kontuan artu ' aixia ezautu ta itxasua zelan euan ikusirik ' txalupetako nauisai ots edo oles eitten eutsen. Gero txalupa-maixuakaz batera osteratu biar ixate eban Talara; eta guztijen artian eguraldija alik ziatzen astertutakuan ' itxasoraterik egonez kero ' dei egittekuai dei eittera juaten zirian.

**1927ko Telesforo Aranzadiren** artikulua (ikus 264. or.)

**1930eko El Noticiero Bilbaino**ko kronika:

El Noticiero Bilbaino, 1930-8-29

LEQUEITIO

CONCURSO DE LLAMADORES PARA LAS FIESTAS DE SAN ANTOLIN

Concurso establecido para las fiestas de San Antolín,

en Lequeitio, de llamasoras de pescadores para la salida al mar durante la costera de besugo, tradición que actualmente subsiste en esta villa.

Historial de la fiesta por don Agustín Zabala.

A las doce de la noche suelen salir a la Atalaya dos funcionarios de la Cofradía de Mareantes de Lequeitio, llamados "Señeros", uniformados con un capote, un farol, y una barra de hierro cada uno.

En dicho punto de la Atalaya, permanecen hasta las dos o las tres de la mañana en observación del tiempo y, una vez llegada esa hora, celebran ambos una consulta, con el fin de resolver si el tiempo se considera favorable o no para salir a la mar los pescadores.

En caso afirmativo o favorable, ambos "Señeros" se dirigen a las casas de los patronos de las embarcaciones y, dando unos golpes con la barra, en la puerta, dicen: "José Inasiooo, trastiak sartun" (refiriéndose a que entren los pertrechos de pesca en las embarcaciones).

Después de la actuación de los "Señeros", un hombre que se encuentra en la cofradía, toca durante diez minutos, una campana, en señal de llamada o aviso a las mujeres llamasoras de las embarcaciones, pues cada embarcación tiene su llamasora. Estas, a continuación, van con unos faroles llamando a los tripulantes de sus respectivas embarcaciones, dando las siguientes llamadas: En días laborables. "Pedro Juan... Gora Jangoicuaren isenianmun..." (Levántate en el nombre de Dios); y siendo día de fiesta o domingo: "Pedro Joséeee... Gora Jangoicuaren isenianmun... Mesia entzutekoooo..." (Levántate en el nombre de Dios para oír misa).

La misa que se celebra los domingos y días de fiesta de salida a la mar es especial, a primera hora de la madrugada, para los pescadores.

Seguidamente, los pescadores salen de sus casas con las cestas y pertrechos de pesca, para ocupar sus puestos en sus respectivas embarcaciones y hacerse a la mar. A la salida de las embarcaciones del puerto, los tripulantes, arrodillados y descubiertos, sobre cubierta, van contestando a los rezos del patrón de la embarcación.

En caso de que el tiempo sea dudoso, los "Señeros" llaman a consulta a seis patronos a la Atalaya, para decidir entre todos qué determinación tomar, o sea, si han de salir a (sic) no para las faenas de la pesca.

Una vez cambiadas las impresiones entre todos, se dirigen a la Cofradía, donde existe una cajita en donde están pintadas al par de un agujero una lancha en el mar y en el otro una casa. Los "Señeros" y patronos celebran una votación secreta y depositan en esta caja una bola cada uno. Si en el agujero de la parte donde se halla pintada la lancha aparecen más bolas, deciden dar la salida para las faenas de la pesca, y en el caso de que aparezcan más bolas en donde está pintado la casa, los "Señeros" llevan arrastrando las barras por las calles en señal de que se ha suspendido la salida al mar.

Este concurso de llamasoras tendrá lugar el día 7 de septiembre próximo, domingo, a las siete de la noche.